



EZTABAIDA
DEZAGUN!

0. AZALA

Irudi honetan, elurretan ageri dira gure laguntxoak! “Eztabaida dezagun!” diote. Zergatik uste duzue eztabaidatu nahi dutela?

Azaleko irudia ikusi, begiratu, eta egin galdera hori bera haurrari.

Bota zuen ideia zaparrada!

Ondoren, galdetu honako hauek haurrari:

- *Eztabaidatzea ona dela uste duzu?*
- *Noiz eztabaidatzen dugu normalean?*

1. URREZKO GILTZA

Animatu haurra goiko esaldia irakurtzera, eta egin gero galdera hau:

- *Irudia ikusita, zer uste duzu dagoela ‘Urrezko Giltza’ liburuaren barruan?*
- *Eta CDak? Zer entzun abal izango dugu bertan?*
- *Nortzuk dira idazleak?*

Zuk ere ez baduzu argi zeri buruz dioan, hona informazio pixka bat: ‘Urrezko giltza’ 2005. urtean sortutako bat da. Liburu horretan, Patxi Zubizarreta euskal idazle famatuaren hainbat istorio biltzen dira. Abendaño ikastolako haur abesbatzak hartu zuen parte diskoan.

Hemen duzue ipuinaren audio baten link-a: <https://www.youtube.com/watch?v=MJjLiSWe0gA>



EZTABAIDA
DEZAGUN!

2. AURKIBIDEA

Aurkibidearen atalean, eskuineko testutxoa da interesatzen zaiguna.

Gure gomendioa da haurrari esatea testutxoa irakurriko diozula, eta berari adi entzuteko eskatzea. Adi entzun beharko du, bai; izan ere, amaitzean, irakurri duzun horren inguruan berak jaso duena adierazi beharko du.

Berak barneratu duen hori adieraztean, esaiotu zer jaso duzun zuk zeuk testua irakurtzean, eta hitz egin gatazkak modu egokian kudeatzearen garrantziaz, guk (helduok) dugun rolaz, kudeaketa egoki baten ondorioez etab.

Haurrarekin gaiari buruz hitz egiterakoan, agian baliagarriak suertatu ahal zaizkizu webgune honetako ideiak:

<http://faros.hsjdbcn.org/es/articulo/como-ayudar-ninos-afrentar-resolver-conflictos>

3. PUPU ETA LORE

Eman aukera haurrari berak bakarrik begiratu eta irakurtzeko komikia.

Esan zuk ez duzula komikia irakurriko ezta irudiak begiratuko ere, eta, beraz, ez duzula jakingo inondik inora zeri buruz doan. Esan berak irakurtzen duen hori zuri kontatu beharko dizula.

Kontatzen amaitzean, irakurri komikia bion artean, eta komentatu nahi duzuen gaia buruz.



EZTABAIDA
DEZAGUN!

4. PIRRITX , PORROTX ETA MARIMOTOTS

Gure laguntxoan testua zuk zeuk irakur diezaiokezu. Irakurketa horren helburua izango da berak adi entzutea zuk irakurtzen diozun hori; izan ere, noizean behin, galderatxoaren bat egingo diozu kontatzean ari zatzaizkion horri buruz!

Entzun adi, beraz!

5. TIRITAXO

Seguruenik, zure haurrari ezagunak egingo zaizkio Tiritatxoaren marrazkian ageri diren irudiak! Hori horrela:

- Galdetu ea zeri buruz uste duen hitz egingo digula orainoan!
- Behin horri buruz hitz eginda, proposatu haurrari testutxo bakoitza irakurtzea. Irakurri ondoren, testuan jartzen zuena bere hitzekin adierazi beharko du.
- Testutxo guztiak berak irakurri beharrean, bion artean irakur dezakezue: bat berak eta bestea zuk.

Amaitzean, galdetu haurrari ea irakurri duzuen horretatik zein izan den ideia eta gauzarik interesgarriena beretzat!

6. MARIMATRAKAK

Noa eta Learen istoriotxoak irakurtzeko, zera gomendatzen dugu: has zaitez zu testua irakurtzen.

Irakurri “Eta gainera pelikula jarriko du Noak, ez Leari gustatzen zaizkion marrazki bizidunak...”, eta, ondoren, galdetu haurrari zer uste duen gertatuko dela jarraian...



EZTABAIDA
DEZAGUN!

Behin berak uste duen hori kontaturik, segi irakurtzen. Gelditu berriz “Leak, egoeraz baliatuta, telebista piztu eta marrazki bizidunak jarri ditu” esaldira iristean.

Animatu haurra istorioaren jarraipena egitera berriz.

Amaitzen duenean, amaitu istoriotxo irakurtzen.

Guztiz irakurtzean, hitz egin istorioari buruz... Zer iruditu zaizue?

7. BARATZE URBANOA

Irakurri izenburua, eta, komikitxo irakurtzen hasi aurretik, galdetu haurrari:

- *Zeintzuk uste duzu etorriko direla bisitan?*
- Eskatu marrazkietara begiratzeko, eta galdetu: *Zenbat intsektu ikusten dituzu irudian?*
- *Nola deitzen da puntu beltzak dituen animaliatxo gorria?*
- Urteko zein garaitan egoten da intsektu gehien?
- Galderak erantzun ondoren, proposatu haurrari komikotxo berak irakurtzeko.

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Harramazka

Harramazka testutxo irakurri haurrari, eta, irakurri ostean, galdetu:

- *Zeri buruz ari dela uste duzu?*
- *Zer da 'Harramazka'?* Esaiozu larruazaleko urratu ez-sakona dela berez, baina kasu honetan ez du hori esan nahi. Azaldu iezaiozu testuan adierazi nahi duen hori.



EZTABAIDA
DEZAGUN!

Esadazu

Gauzak esatearen eta barruan ez gordetzearen garrantziaz hitz egiten du. Hitz egin horren inguruan ere.

Basoko lehia

Irakurri zuk testua, eta ea haurrak zer ulertzen duen.

9. LAGUN

Interesgarria oso testua! Irakurri bion artean, eta, amaitzean, galdetu haurrari:

- “Soka ikusezina” esaten duenean, zeri buruz ari da? Zer ulertzen duzu zuk?
- Gertatu zaizu noizbait horrelakorik? Hala bada, kontatzeko eskatu.
- Zuk zeuk ere hitz egin haurrari soka ikusezina sentitu eta bizi izan duzun egoerez.

Gure azken proposamena. Erosi soka zati batzuk, eta gorde etxeko tokiren batean. Erabili soka horrelako egoerak gertatzen zaizkizuenean: arazo bat duzuenean eta horren inguruan hitz egiteko gai ez zaretenean, barruan haserrea duzuela sentitzean... atera soka eta hitz egin... hitz egin gertatzen zaizuen horren inguruan, azaleratu sentimendu eta emozioak... jakinaren gainean jarri bestea... Amaitzean, jolastu sokarekin! Erabili soka jostagarria den zerbaitetarako!

Ea zer bururatzen zaizuen!



EZTABAIDA
DEZAGUN!

10. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK

Gure proposamena da testuak zatika irakurtzea zuk haurrari.

Zati bakoitza irakurtzen amaitzean, hitz egin irakurritakoaz eta irakurritako horiek entzutean burura etorri zaizuenaz.

Irakurtzen amaitzean, hitz egin bitxiena iruditu zaizuen horri buruz, eta marraztu txerriak!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Irakurri aurretik, honako galdera hauek planteatu ahal dizkiozu haurrari:

- Zeren inguruan uste duzu jardungo dutela hizketan gure lagunek?
- Zer esan nahi du ados egoteak?
- Ados egotea erraza ala zaila dela uste duzu?
- Gogoratzen al duzu zerbaitetan ados egon ez zinen azken aldia?

Behin galdera horiek eginda, gure lagunen hizketaldia irakur dezakezue bion artean. Horretarako, lau lagun ditugula aintzat harturik, elkarrizketetako pertsonaiak banatu eta bion artean irakur dezakezue! Horrela, haurra motibatuago sentituko da!

Behin hizketaldia irakurrita, honako galdera hauek egin diezazkiokezu haurrari:

- Zer gertatu da gure lagunen artean?
- Zergatik haserretu da Peru?
- Nola bukatu da azkenean?



EZTABAIDA
DEZAGUN!

12. MARTIN BERTSO

Oraingoan ere, gure Martinbertso eta bere lagunak: bertsotan! Eta ze gustura irakurtzen ditugun haren bertsoak, ezta?

Oraingoan, inauterien inguruan hitz egiten digute!

Bertsoak haurrari irakurtzeko proposamena egin, edo, nahi baduzue, bion artean irakurri, doinu eta tonu berezi bat erabiliz.

Irakurri ondoren, galdetu ea zer ulertu duen.

13. MARIKALANBRE

A ze istorio polita kontatzen diguten oraingoan ere gure lagun Marikalambreren komikian... Irakurri nahi? Polita da benetan!

Proposatzen dizuguna zera da:

Zuk zeuk irakurri haurrari komikia, eta, irakurtzen diharduzun bitartean, haurrak eskuaz seinalatu beharko du gertatzen ari den ekintza hori. Adi-adi egongo da irakurtzen, seguru!

Amaitzean, zera galde diezaiokezu haurrari:

- Zer gertatzen da amona Txinparta etxera sartzean?
- Zergatik haserretu dira?
- Zer kontatu dio Manexek amonari?
- Zertarako esaten dio amonak eztabaidatzen jarraitzeko?



EZTABAIDA
DEZAGUN!

14. LARGABISTA

Largabista eta Lagun elurretan eskiatzen!

Irakurri komikia. Amaitzean, egin marrazki bat irakurri duzuen horren inguruan, eta bidali guri!

Bukatzean, eskiatzera joateko bidea aurkitzeko labirintoa egin! Horretarako, denbora kronometra dezakezue! Ea zenbat denboran egiten duzuen!

15. HAUR KANTAK

Haur kantak gauean irakurtzea gomendatzen dizuegu. Horretarako, hartu afalosteko momentutxo bat, eta, etxeko berotasunean, ekin kantuari!

Gogoratu ez dagoela etxeko goxotasuna eta maitasuna bezalakorik! Eman maitasuna elkarri, eta bizi momentu oro bakarra eta altxorra bezain berezia izango balitz bezala!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Oraingoan, ASPANOGIri buruz hitz egiten digute.

Gure proposamena honako hau duzue: irakurri lehenik komikia bion artean, eta, amaitzean, informatu elkarte honen inguruan.

Eskuineko linkean duzue helbidea: <http://www.aspanogi.org/index.php/es/>



EZTABAIDA
DEZAGUN!

Webgunea aztertu ondoren, pentsatu zer egin dezakezuen horrelako gaitzak dituzten haurrengatik, eta **ZERRENDATU IDEIAK!** Ideia guztiak dira onak; beraz, proposamenik baduzue, bidali guri, gustu handiz jasoko baititugu!

ONDO PASA, MAHASPASA!